

Greba deialdiko irakaspenak

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Enplegu, zaintza eta hezkuntza arloetako emakume*-ok eta pentsiodunak greba egitera deituta geunden aurtengo Martxoaren 8an. Izartxo eta guztiko rol horretan beren burua ikusten ez zuten bati baino gehiagori azalpenak eman behar izan dizkiogu. Inguruan, izartxo barruan ustez eroso sentitzen garenon artean ere izan ditugu eztabaidak.

Etkez etxeko zaintza zerbitzuko edo eguneko zentroko langileek greba egi-terik izan ez dutelako, haien zaintzapeko adinekoak beste emakumeren baten kargupean utzi beharrak sortzen zien

kontraesanagatik. Haurrei bularra ematea zerbitzu minimotzat hartu duten amen erabakiaz ere aritu gara. Greba deialdia nahi bezala ulertu eta, arratseko mobilizazioan parte hartu arren, afaltzera tabernara joandako emakume talderen batek ere eragin du zeresana.

Akaso, ordea, grebaren arrakastaren araberrako balorazioen orde, grebari esker izandako eztabaiden araberrako balorazioak egin beharko genituzke, tokian toki. Gurean, hainbat belaunalditako emakumeak mural feminista margotzera zein biharamuneko afarira

batzeko balio izan du. Grebaren zergatiaz hitz egiteko, emakumeok lan egiteari utziz gero, mundua geratzen dela ohartzeko.

Egitekoak ere utzi ditu hurrengo baterako. Greba deialdia gizarteratzen lan gehiago egin beharko genukeela ulertu dugu. Lan prekarioegiak dituztelako egun bateko soldata galdu ezin duten kideengatik ere greba egiteko ardura dugula ikasi dugu. Mobilizazioa eta ospakizuna batzen asmatu behar dugula, eta zerbait antolatzeke zain dauden horiek antolaketara aktibatzeke erronka ezarri diogu geure buruari. •

Espainia

Joxean Agirre

Behinola, Arabako Lapueblako upategi batean ardoak probatu ondoren gain batera eraman gintuen bertako nagusiak eta, Fuenmayorko mahastiak seinalatzen zituela, kontatu zigun ez dakit zein aro geologikotan, orain milioi batzuk urte, Afrikatik berezitako lur zati bat etorri zela eta han bertan, Ebro ibaiaren mugan, egin zuela talka Europarekin. «Horiek Afrikako lurra dira. Hauek Europa-koak», esan zuen. Arabako ardoak hobeak zirela esan nahi izan zuen. Teoria interesatuegia zela pentsatuz, etxeratzean Googlen begiratu eta antzeko

zerbait defendatzen zuen Errioxako Unibertsitateke geologo batek.

Orain hilabete batzuk irakurri nuen Ignacio Sanchez-Cuencaren “La desfachatez intelectual”, espainiar idazleek politikaren aurrean (Kataluniako auzian bereziki) duten jarrera aztertzen duen liburua; eta horretan ere Espainia ezberdina dela erakusten du, Europako prentsan zutabegile eta iritzi-emaileak arlo ezberdineteke adituak diren bitartean, Espainian idazle eta letreteke jendea baita. Oraindik orain irakurri dut Jorge del Molinoren “La España vacía”, penintsula barrualdeke desertizazio demo-

grafikoeke aztertzen duen liburu bikaina. Ondorioa bera da, klima eta demografia aldetik Espainiak ez dirudi Europa.

Espainiako justiziaren funtzionamenduaz ez dut libururik irakurri, baina ez da zaila ondorioak ateratzen. Azken hamar urtean 40 aldiz kondenatu du Estraburgok Espainia eta 70 aldiz Europa-ko Kontseiluaren parte denetik.

Geologia, klima edo populazioaren banaketeke aldatzen zailak dira, baina hori bezainbat kostatuko zaigu Espainiako justiziaren egiturari itsatsita gelditu ziren eta dauden frankista togadunak begi bistatik galtzen. •